

ERAKUNDE ETA ZENTRO ESKATZAILEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK, 2017KO DEIALDIAN APLIKATZEKOAK

2017ko deialdiaren testutik ateratako edukiak. Gorriz nabarmendu dira aurreko deialdiarekin alderatuz egin diren aldaketa nagusiak.

ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

8. artikulua

Deialdi honen 3.3.b) artikuluan aipatzen diren prestakuntza-ekintzak baloratzeko, irizpide hauek erabiliko dira (**III. eranskinean** gehiago zehazten dira).

A. Prestakuntza-ekintza prestakuntza-beharrentzako egokia izatea.

Gehienez ere 30 puntu lor daitezke.

Horren helburua **prestakuntza-ekintzak puntuazioaren bidez sailkatzea da**, arlo hauekin loturiko irizpideen arabera: **familia profesionala; kualifikazio-maila; programaren tipologia**; prestakuntzaren zehaztasunak, **egiaztagarria izan edo ez izatearen ingurukoak; eta klaseak emateko hizkuntza eta modalitatea**. Horrez gain, lotura du prestakuntzako espezialitateen programaziorako lehentasunekin; hain zuzen, Lanbidek Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuan, 15. artikuluan, xedatutakoari jarraikiz eginiko **Enplegurako prestakuntza-beharren diagnostikoan** hautemandako prestakuntza-beharren arabera zehazten dira lehentasun horiek (diagnostikoa **Lanbideren webgunean dago**).

Oinarrizko kompetentziak eta zeharkako kompetentziak lortzeko prestakuntza-ekintzen kasuan, 7 puntu emango dira a.1 irizpidean.

B. Eskatzailearekin lotutako jardueraren adierazleak.

Gehienez ere 60 puntu lor daitezke.

Horren helburua **prestakuntza-ekintzak** diru-laguntzaren **eskatzailearen ibilbidearen arabera sailkatzea da**. Eskatzailea sozietate-talde batekoa bada, taldeko erakundearen jardura hartuko da kontuan, eta halakotzat joko da 1407/2013 Erregelamenduaren (EB) 2.2. artikuluan enpresa bakarraren definizioarekin bat datorrena, edo Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritako sozietate-taldearen definizioarekin bat datorrena.

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=DOUE-L-2013-82949

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1885-6627&tn=1&p=20130928#art42>

Erakunde beraren ekintza guztiek B atalean zehaztutako irizpideen arabera lortutako puntuazioa izango dute. Ibilbidea jarraian zehazten diren azpiirizpideen arabera kalkulatu da.

Zenbait kasutan, baloratu beharreko datuak prestakuntza-erakundeari dagozkio, hura titularra den prestakuntza-zentro guztiei dagozkionak barne. Kasu horretan, (IFK) adieraziko da. Beste kasuetan, baloratu beharreko datuak banakako prestakuntza-zentroei dagozkie. Kasu horretan, (prestakuntza-zentroa) adieraziko da.

Sailkapena **adierazle hauen** arabera egingo da:

b.1.- Sintesi-adierazlea (gehienez 10 puntu)

Langabeei zuzendutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-programazioetan **prestakuntza-erakundeak (IFK) familia profesional bakoitzean lortu dituen gogobetetasun-tasen batezbestekoa**. Horretarako, **2016an amaitutako** programazioak hartuko dira kontuan, programazio- eta hasiera-urtea edozein izanik ere.

Lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako diru-laguntzen **deialdietan**, Lanbidek onartutakoetan, **parte hartu ez duten prestakuntza-erakundeei 5 puntu** emango zaizkie. Era berean, **5 puntu emango zaizkie 2016an amaitutako ekintzaren batean**, arrazoa zeinahi izanda ere, **adierazle hori lortu ezin izan duten erakundeei**.

b.2.- Ziurtagiri ofizialak (gehienez 7 puntu)

Indarrean dauden **sari edo ziurtagiri ofizialak; kalitatearekin, ingurumenarekin, laneko segurtasun eta osasunarekin, genero-berdintasunarekin edo euskararekin** lotuta daude eta erakunde eskatzaileak (IFK) homologatutako estandarrak betetzen dituela egiaztatzen dute.

Ezingo dira aintzat hartu prestakuntza-erakundeek berek alderdi horiei dagokionez eginiko erantzukizunpeko adierazpenak edo ziurtagiriak.

Kalitatean, EFQM ereduari dagokionez, aintzat hartuko da Bikaintasunerako konpromisoaren zigilua (200+), bai eta Europako bikaintasunerako 300+, 400+ eta 500+ zigiluak ere. Zilarrezko Q saria 400+ zigiluaren baliokidea da, eta Urrezko Q saria, 500+ zigiluarena. Aintzat hartuko dira, halaber, aldundiek, ministerioek edo administrazioen beste erakunde batzuek kudeaketaren alorrean ematen dituzten kalitate-sariak edo -ziurtagiriak.

Euskarari dagokionez, prestakuntza-erakundeak lortutako ziurtagiriak edo sariak hartuko dira kontuan, baina **ez** zentro horretako **irakasleek euskarako zer ziurtagiri dituzten**.

Berdintasunari dagokionez, kontuan izango dira berdintasunarekiko konpromisoa egiaztatzen duten erakundeak, hau da, entitate laguntzaile moduan aukera berdintasunaren gaineko egiaztapenak edo bereizgarri bat izatea.

b.3.- 2015, 2016 eta 2017ko enpleguaren eta prestakuntzaren arloko **diru-laguntzak emateko ebazpenak** edo indarrean dauden **lankidetzak-hitzarmenak**, Lanbideko Enplegurako Prestakuntzako Zuzendaritzak ez beste erakunde publiko edo pribatu batek kudeatutakoak (gehienez 5 puntu)

Prestakuntza-erakunde batek (IFK) artatzen dituen kolektiboko pertsonen edo ekoizpen-sektoreen beharrei erantzuteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lortu edo sinatu dituen proiektuentzako diru-laguntzak emateko ebazpenen edo hitzarmenen kopurua. Proiektu horiek Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak edo Hobetuzek, erakunde kolaboratzaile gisa, edo beste erakunde edo organo batek kudeatzen dituzte (hala nola Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, aldundiek, udalek, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko beste administrazio publiko batzuek, sektoreko enpresen elkarteek...).

Ildo horretan, **aintzat hartuko da**, baita ere, **enpresek programatutako prestakuntza antolatzeaz edo emateaz arduratuko den erakundea izateko hitzarmena** edo kontratua, bai eta prestakuntza emango duen erakundeak eta enpresa-elkarte batek landunei prestakuntza emateko egindako hitzarmena edo kontratua ere.

Aitzitik, ez dira kontuan hartuko lanekoak ez diren praktikak egiteko prestakuntza-erakunde baten eta enpresa baten artean eginiko hitzarmenak edo kontratuak, ez eta **enpresako langileei funts publikoekin finantzatu gabeko prestakuntza emateko egiten direnak** ere.

Horiez gain, ez dira kontuan hartuko, Estatuko deialdietan elkarrekin parte hartzeko xedez, erakundeek elkarte bat eratzeko egiten dituzten hitzarmenak, bai, ordea, zentroek osatutako taldeei diru-laguntzak emateko ebazpenak edo hitzarmenak, betiere erakunde bakoitzari zer ehuneko onartu zaion zehazten bada. Halaber ez dira aintzat hartuko zentro elkartu izateko egiten dituzten hitzarmenak, saio presentzialak teleprestakuntzaren modalitatean gauzatu ahal izateko.

Hezkuntza-ituraren ebazpena aintzat hartuko da, baina ez prestakuntza-zikloak emateko baimena.

b.4.- 2016an, lehenatasunez pertsona langabeentzako egindako deialdiaren jarduera-ildo guztietan emandako diru-laguntzen exekuzio-maila. Adierazle honen bidez, onartutako prestakuntza-ekintza guztietatik egiaz zein hasi diren neurtzen da (gehienez, 3 puntu)

- Onartutako ekintzen % 90 eta % 100 artean: 3 puntu
- Onartutako ekintzen % 80 baino gehiago eta % 90 baino gutxiago: 2 puntu
- Onartutako ekintzen % 70 baino gehiago eta % 80 baino gutxiago: 1 puntu
- Onartutako ekintzen % 70 baino gutxiago: 0 puntu

b.5.- Erakunde eskatzaileak **egiaztatzen duen kompetentzia** (gehienez, 35 puntu)

Irizpide hauen arabera kalkulatu da:

b.5.1.- Gehienez 10 puntu: langabeei zuzendutako eskaintza finantzatzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartutako laguntzen **deialdietan** prestakuntza-erakunde (edo prestakuntza-zentro) bakoitzak **prestatutako pertsona-kopurua. 2013, 2014, 2015 eta 2016ko programazioetako ekintzen batezbestekoa hartuko da kontuan.**

b.5.2.- Gehienez 5 puntu: langabeei zuzendutako enplegurako prestakuntzaren alorrean lan egiten duten **beste erakunde batzuen** laguntza-**deialdietan** edo horiekin sinatutako hitzarmenen ondorioz **prestatutako pertsona-kopurua**, prestakuntza-erakundeka (IFK) kalkulatu.

Ez dira kontuan hartuko haien ardura duen erakundearentzako prestakuntza-planak egiten dituzten prestakuntza-erakunde publikoen datuak.

Bestalde, 2013, 2014, 2015 eta 2016ko programazioetako ekintzen batezbestekoa hartuko da kontuan.

Kontuan hartuko dira, baita ere, ekimen pribatuko profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea xede duten ekintzetan prestakuntza jaso duten pertsonak.

Ez, ordea, lehenetsunez pertsona landunei zuzendutako deialdietan parte hartu duten langabeak.

b.5.3.- Gehienez 10 puntu: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartutako **Lehen Aukera eta Hezibi** programen **deialdietako parte-hartzaile** kopurua. Lehen Aukeraren deialdian erakunde bakoitzak 2014an, 2015ean eta 2016an jasotako eta kudeatutako pertsonen kopuruak batuko dira. Bestalde, Hezibi programan, modalitate horretan 2013an, 2014an, 2015ean eta 2016an Lanbideak diruz lagundutako prestakuntza-ekintza bat egin zuten pertsona-kopurua hartuko da kontuan. Irizpide honen balioa prestakuntza-erakunde (IFK) bakoitzak kalkulatu beharko du.

b.5.4.- Langabeei zuzendutako eskaintza finantzatzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartutako 2015eko laguntzen deialdietan **egindako ekintza guztien enplegagarritasun-tasa**, prestakuntza-erakundearen (IFK) arabera kalkulatu, **prestakuntzako espezialitate** bakoitzean (deialdi honen II. eranskinean programagarritzat argitaratu da) (gehienez, 10 puntu).

Honela kalkulatu da: **(Prestakuntzako arrakasta-tasa x p1) + (Besteren konturako laneratzearen tasa x p2) + (Parte-hartze anitzeko tasa x p3)**, non:

- **Prestakuntza-ekintzaren arrakasta-tasa:** prestakuntza emaitza positiboarekin amaitzen duten pertsonen kopurua, prestakuntza-ekintza hasi duten guztizko parte-hartzaile kopuruaren gainean.

- **Besteren konturako laneratzearen tasa:** prestakuntza-ekintza amaitu eta sei hilabeteren barruan besteren konturako kontratu bat lortu duten pertsonen kopurua.

- **Parte-hartze anitzeko tasa:** prestakuntza-ibilbide bat egiten duten pertsonen kopurua; hau da, lehenengo prestakuntza-ekintza bigarren batekin lotzen duten pertsonen kopurua ikastaroa amaitu ondorengo hamabi hilabeteetan.

- **p1, p2 eta p3 kualifikazio-mailarekin lotuta kalkulaturiko tasa bakoitzari emandako pisuari dagozkion.**

Tasa horiek ez dituzte haztapen-irizpide berak, prestakuntzako espezialitateen kualifikazio-mailaren arabera. Hala, **beheko mailetan (0 eta 1) lehenetsun handiagoa du prestakuntza ongi amaitzeak**, laneratzeak baino; aldiz, **maila gorenean (3), laneratze-tasak garrantzi handiagoa du**. Bestalde, **parte-hartze anitzeko** tasari dagokionez, **2. mailan** parte hartzeari ematen zaio **garrantzi handiena**.

	Arrakasta-tasa	Laneratzearen tasa	Parte-hartze anitzeko tasa	GUZTIRA
0. eta 1. mailak	80	10	10	100
2. maila	70	15	15	100
3. maila	60	30	10	100

Prestakuntzako espezialitateetarako Lanbidek 2015ean onartutako diru-laguntzen deialdian **parte hartu ez duten prestakuntza-erakundeei 5 puntu emango zaizkie**.

C. Eskualdearen araberako haztapen-irizpideak

Irizpide horren helburua diruz lagundu beharreko prestakuntza ekintzak eskualde guztien artean era orekatu batean banatzea da.

Irizpide hori aplikatzeko, honela jardungo da:

Lehenengoa.- A eta B irizpideak aplikatuz eskaerak balioetsi eta ordenatu ostean, eta, aurrekontu-mugak kontuan izanda, diruz lagundu beharreko prestakuntza-eskaintza lortzen denean, **prestakuntzako espezialitateak** aztertuko dira eta lurralde historiko bakoitzeko gutxienez hiru eskualdetan ordezkartzarik ez daukatenak hautemango dira; era berean, begiratuko da zer eskaintza dauden neurritz gain ordezkaturik (hau da, prestakuntza-jarduera bat baino gehiago) eskualde batean edo bitan (eskualde saturatua).

Bigarrena.- Lurralde historiko bereko beste eskualde batean edo bitan ematen den **prestakuntzako espezialitate berari** dagozkion eskaeren artean, printzipioz,

aurrekontu-kreditura iritsi ez den **eskaerarik ba ote den** begiratuko da (hiruko gutxienekoa lortzeko bat edo bi falta diren aztertuta).

Hirugarrena.- Diru-laguntza eskuratzeko lehentasuna izango du edo dute bigarren puntuari adierazitako eskaerak edo eskaerek, saturatutako eskualdean edo eskualdeetan puntuazio okerrean lortu duenaren edo dutenen aldean, lurralde historiko bereko hiru eskualdetan prestakuntza-ekintza bat diruz laguntzeko gutxienera iritsi artean.

III. eranskinean daude horretarako kontuan hartu beharreko eskualdeak zerrendatuta.

Berdinketa gertatuko balitz, b.5.4 balioespen-irizpidean puntuazio handiena lortu duen eskaerak izango du lehentasuna. Berdinketak jarraituko balu, b.5.3 balioespen-irizpidean puntuazio handiena lortu duen eskaerak izango du lehentasuna. Berdinketa hausteko azken irizpide gisa, b.1 balioespen-irizpidean puntuazio handiena lortu duena hartuko da aintzat.

Diru-laguntza lortu ahal izateko, prestakuntza-ekintzek 30 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, A eta B ataletako adierazlearen arabera. Irizpide horiek III. eranskinean daude zehaztuta. Diru-laguntza ukatu egingo da prestakuntza-ekintzak gutxienera puntuazio hori lortzen ez badu.